


# BERRIGARA


7. zenbakia

Jardun elkartea, Bergara

1991, Otsailak 1



**Auzoak jaietan:**  
San Paulo,  
San Bizenti  
eta San Blas



**Kotxeen  
azterketa,  
debaide otsaillean**



**Udal  
Osoko Bilkura,  
eztabaidatsua**



**ROVER**

**SAN ANDRES AUTOMOBILAK**

**ROVER 200 SERIEA, 16 BALBULA ETA**



**1.785.000 PZTATIK AURRERA**

**Araba Etorbidea 13, 20.500 ARRASATE**

**Tfnoa: 79 95 22 / 79 53 98**







# GAMAK

## INFORMATIKA GAUZAK

**LASTER BATEAN PARTEHARTZE MUGATUA DUTEN  
KURTSOAK EMANGO DIRA; GAI HAUEK LANDUZ:**

- Sistema Eragilea: " MS-DOS "
- Datu Basea "DBASE III PLUS"
- Kalkulon Orria: "LOTUS 1,2,3"
- Testu prozesatzailea: ' WORDSTAR "
- Ordenadore bidezko marrazketa: "AUTOCAD"
- Automata programagarriak: " ALLEN BRADLEY "

ARTZAMENDI 1

Tfnoa: 76 56 85, Faxa: 76 55 97

BERGARA



# BONOFOTOA

**BERRIGARA**

*Jardun Elkartea*

1991, otsailak 1



M. A. Elkorobereibar



## *Iñigo Unamuno*

139 txartel jaso genituen aurrekoan. Zozketa egin eta gero, 10.000 pza.k argazkian agertzen den Iñigo Unamunok eskuratu zituen.

Arrazoia zuen, erantzun zuzena Mintegi Kalea genuen. Zorionak, beraz.

Eta besteok, segi jolasten. Akaso hurrengoan!

*Zein da ermita honen izena?*

Izena: \_\_\_\_\_ Abizena: \_\_\_\_\_ Tfinoa: \_\_\_\_\_

Moztu paper hau eta ekarri astebete baino lehen: **BERRIGARA**


**Errotalde Jauregia**

**20.570 Bergara**

**Oharra:** Asmatzailerik azalduko ez balitz, saria hurrengo BONOFOTOraiko gordeko litzateke, FOTOPOTEAN



# GIARTZU



## GIMNASIOA

BONI LASKURAIN 3, ETXABEA

Tfnoa: 76 35 71

BERGARA

# BERGARAKO AZOKA

<p><b>JUANITA MORENO</b></p> <p><b>Arraindegia</b></p> <p>Tfnoa: 76 12 54 Azoka: 76 02 44</p>	<p><b>GABLONDO</b></p> <p><b>Harategia</b></p> <p>Azoka: 76 26 98 Etxekoa: 76 26 53</p>	<p><b>JANARI</b></p> <p><b>FRESKOAK</b></p> <p><b>AUKERATUAK</b></p>	<p><b>LURDES</b></p> <p><b>Harategia</b></p> <p>Esneko Moxala</p> <p>Tfnoa: 76 12 17</p>	<p><b>IZOTZ</b></p> <p><b>Konjelatuak</b></p> <p><b>Errefrijeratuak</b></p> <p><b>Marskoa</b></p> <p>Tfnoa: 76 56 91</p>
<p><b>MERTXE</b></p> <p><b>Oilaskoak Urdaitegia</b></p> <p>Tfnoa: 76 54 67</p>	<p><b>YANIRE</b></p> <p><b>Frutadenda</b></p> <p>Tfnoa: 76 52 34</p>	<p><b>LA BERMEANA</b></p> <p><b>Arraindegia</b></p> <p>Tfnoa: 76 15 16 Etxekoa: 76 00 48</p>	<p><b>PATRI</b></p> <p><b>Harategia Txemikitegia</b></p> <p>Tfnoa: 76 02 20</p>	<p><b>PRIMI</b></p> <p><b>Arraindegia</b></p> <p>Azoka: 76 15 90 Poligonokoa: 76 21 91 S. Antonikoa: 76 21 08</p>



# BERRIGARA

**Argitaratzailea:**

Jardun Elkarte

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara  
Tfnoa: 760397

**Laguntzailea:** Bergarako Udala

**Zuzendaria:**

Miguel Angel Elkorobereziabar

**Erredakzioa:** Jon Andueza

**Maketazioa:**

Edume Arenaza. Jon Andueza

**Publizitatea eta harpidetzak:**

Ignazio Irigoien. Edume Arenaza  
Tfnoa: 760397

**Erredakzio-kontseilua:** Jose Angel

Mikeo, Estepan Plazaola eta Juan  
Martin Elexpuru

**Kolaboratzaileak:** J. Oregi, A.

Urzelai, Mariipi Laskurain, Silvia Sanz,  
Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel  
Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel  
Elkorobereziabar, Josune Iñarra eta  
Xabier Aranburu, Aitziber Aretxaga  
eta Ainhoa Bikuña

**Argazki laborategia:** I. G. Landa, A.

Gallastegi, B. Cantero, M. Leturia, K.  
Retolaza, J.A. Eguren, J.I. Millan, J.  
Aguayo, R. Vicente, J. Tabares, J. A.  
Jauregi eta Kifitu

**Komikia eta marrazkiak:** Josu Okina

eta Antonio Arrillaga

**Inprimetgia:**

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

**Banaketa arduraduna:**

Txantxangorri Taldea

**Copyright:**

BERRIGARA

**Tirada:** 2.000 ale

**Lege gordailua:** SS 50/ 91

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanien eta eri-  
tzien erantzunkizunik.



## 1 OSTIRALA

- **Zinea:** "El cielo protector", 10.30etan.
- **San Blasak:** 8.30etan auzo afaria, eta ondoren erromeria.
- **Erakusketa:** Otsailaren 10era arte, Pello Alberdiren margo erakusketa Kultur Etxean.
- **Elgoibarren:** Gaztetxean, *labanak* musika taldearen emanaldia, 10.30etan.
- **Goardiako farmazia:** Camacho, Bidekurutzetan

## 2 LARUNBATA

- **Zinea:** "Cry baby", 5etan eta 7.30etan eta 10.30etan.
- **Ikastaroa UNEDen:** Perugiako Unibertsitateko Emanuelle Curtiren eskutik, *Aztarnategia eta materiale arkeologikoei* buruzko ikastaroa. Goizeko 10etan hasita.
- **San Blasak:** Arratsaldeko 4etan, III. San Blas Mus Txapelketa.
- **Pilota partiduak:** Frontonian, 4.30etan hasita, honako neurketa hauek ikusteko aukera: Soroa III-Urra / Etxaniz-Salbidea; Errasti- Una-

nue / Ariznabarreta-Zezeaga; eta Intxaurren-Mendia / Irazola-Unsain.

- **Elgoibarren:** 10.30etan, Gaztetxean, *Pater Noster* eta *Hezur Beltza* taldeen emanaldia.
- **Goardiako farmazia:** Puy, Barrenkalen.

## 3 IGANDEA

- **Zinea:** "El cielo protector", 5etan, 7.30etan eta 10.15etan.
- **Plazako dantzaldia:** 6.30etan hasita, dantzaldia *Izadi* taldearen eskutik.
- **San Blas:** goizeko 11etan Meza Nagusia; ondoren Bergarako Dantzarien saioa; kukaflak ere eguerdirako antolatutuzte, eta baita auzoko ezkondu eta ezkongabeen arteko sokatira desafioa.
- **Erakusketa:** Udaletxean, irratizaleatasunari buruzko erakusketa aurkituko duzue zabalik.
- **Oñatin:** *Tunantes del Norte* antzerki taldearen emanaldia, plazan, 6.30etan.
- **Elgoibarren:** Gaztetxean, 8etan, *Global Warning* musika talde britainiarraren emanaldia.
- **Goardiako farmazia:** Puy, Barrenkalen.

## 4 ASTELEHENA

- **Zinea:** "El cielo protector", 7.30etan.

- **Goardiako farmazia:** Guallar, San Antonion.

## 5 ASTEARTEA

- **Jubilatuentzat txokolata:** 5.30etan, Aitonak Egoitzan.
- **Goardiako farmazia:** Estella, Matxiategin.

## 6 ASTEAZKENA

- **Goardiako farmazia:** Mozos, San Pedron.


## 7 OSTEGUNA

- **Zine Kluba:** 7.30etan, "La vida privada de Sherlock Holmes". Novedades aretoan.
- **Goardiako farmazia:** Camacho, Bidekurutzetan.


## Aukeran...

Irratizaleen erakusketa: Igandean, Udaletxean

**San Blasak:** Astebukaeran zehar, festa giroa San Blas auzoan




Gizon eta gazteentzako  
**JANTZIDENDA**  
Irizar Ibilbidea 3



LIBURU-DENDA

MARTOKO 38  
Tfnoa: 76 45 96

BERGARA



MERZERIA - LENZERIA

D. Irala 5 Tfnoa: 76 25 69  
BERGARA



**Kiñu**

ARGAZKIDENDA

ARGAZKILARIAK

ARTEKALE 15  
Tfnoa: 76 58 05  
BERGARA



**KAIXO BERRIGARAKO ZUZENDARI:**

5. mailako mutil talde bat gara. Gure lanak *Berrigar*an azaltzea nahi dugu. Dinosaurioei eta Zavi Mali-ei buruz prestatu ditugu gure lanak bi talderen artean.

Lagako al diguzue ateratzen? Zergatik ez duzue mutikoentzat orrialde bat edo erdi lagatzen?

5. mailako 11 lagun

**5. MAILAKO IKASLE TALDEARI:**

Asko poztu gara zuen eskutitza jasotzerakoan, eta oso gustora erantzungo dizuegu zuen galderoi.

Begira, oraingoz ez daukagu errebistan leku gehiegirik sail berriak argi-

taratzeko, baina esan behar zuen ideia oso ona iruditu zaigula! Eta horrela, txukun txukun eta irudi politekin ekaritzen badiguzue egindako lana, aurki aterako dizuegu.

Laster arte.

M.A. Elkoroberezibar

**TORREKUAKO FRONTOIA:**

*Berrigara* astekariko zuzendari jauna: Honen bidez Espaloia eta Torreku bitarte horretan dagoen frontoiaren egoera kaskarra azaldu nahi nuke. Frontoi hau oso eroso datorkigu hainbat laguni pelotan jokatzeko, etxetik hurbil edo behintzat erdigunean dagoelako, baina, ez dakigu zeinen erruz txapa falta zaio etalurreko markaketa ere falta da. Herria poliki-poliki hornituaz doa kirol instalazioez, han hemenka egin diren frontoiekin eta; dena den, egiten direnak "bukatuak" egitea ondo egongo litzateke, eta gerora mantenimenduaz ardurtzea ere bai. Horixe da azaldu nahi genuena, ia horren ardura duenak bizkor konpontzen duen problema txiki hau.

E. Igartua

**HALTZARI**

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILEA  
SUKALDERAKO ALTZARIAK

BOLU 24 fnoa: 76 30 57  
BERGARA

**Aldoka Maldoka**

Taberna

KRUZ GALLASTEGI  
BERGARA

**ANDVZY**

ERAIKUNTZA  
MATERIALEN  
BILTEGIA.

Telleriko Lana Pol/Ind. San Juan  
C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41  
Faxa: 76 00 58 BERGARA



• ERITETXEAK

- Osasun etxea ..... 76 10 82
- Larrialdiak ..... 76 12 94
- Arrasateko ospitalea ..... 79 53 00

• GURUTZE GORRIA

- Bergara ..... 76 55 76

• DYA

- Antzuola ..... 76 62 91

• ANBULANTZIAK

- Bergaran ..... 76 13 59
- Gipuzkoako anbulan. .... 45 87 44

• SUHILTAILEAK

- Zubillagan ..... 78 28 00

• POLIZIA

- Udaltzaingoa ..... 76 14 69
- Ertzaintza ..... 76 53 40

• GARRAIOAK

- P.E.S.A. .... 76 16 46
- Taxiak ..... 76 19 50

• HIRUGARREN ADINA

- Mizpirualde ..... 76 13 68
- Aitonak ..... 76 21 40

• BESTELAKO ZERBITZUAK

- Udaletxea ..... 76 39 42
- Epaitegia ..... 76 14 72
- Kiroldegia ..... 76 56 41
- Igerilekuak ..... 76 20 51
- Kultur Etxea ..... 76 44 46
- IMI ..... 76 55 49





Paktokoek Alkatearen dimisioa eskatu; Elkorok auzitara joko

# Osoko Bilkura garrantza astelehenean

Udal Osoko Bilkura eztabaidatsua bizi izan zen astelehenean. Gai ugari mahaiian, jende asko bildu zen Udaltzeko areto nagusian kontuak arretaz jarraitu asmoz.

## Administrarria eta azoka

Administrarri lanpostua betetzeko azterketa inork ez duela gainditu eta, deialdi berria zabaltzea erabaki zen.

Azokari buruz jardun zutenean, aldiz, oposizioko 10 botuek gaia bertanbehera uztea ekarri zuten.

## Zenbait mozio

**Eguzkik** "Nuklearrik ez hemen ez inun" lemapean aurkeztutako mozioak ez zuen aurrera egin. Oposizioko 10 zinegotziek zentral nuklearren kontrako postura aspaldi salatu zutelara argudiatu zuten, eskariari ezetza emateko.

**BOTA** talde antimilistaren mozioak, ordea, 16 zinegotziren baietza jaso zuen (PSOEkoa gelditu zen kanpo). Bertan, laister epaituko dituzten insumisioen askatasuna eskatu, eta soldaduskaren kontra dauden gazteen postu-ara txalotzen zen.

Ondoren, autobiairen gaia jorratu zuten. HBk erreferendumen alde aurkeztutako moziolari erantzunez, Blokeko alderdiek Instituzio, eta batez



ere Diputazioaren aldekoa luzatu eta onartu zuten.

Lituaniari buruz ere aritu ziren; ahobatez erabaki zen bertako parlamentuari solidaritatea adieraztea eta Lituaniari jasaten ari diren akzio militarrek salatzea.

## Farmaziak, Egunkaria...

Farmazien gaueko goardiari dagokionean, Udalak ahobatez onartu zuen lehengo sistema berriz ere ezartzeko eskatzea.

Igerilekuetako obretan 68 milioi pzt. emango dira,

lanak *Culligam* enpresak egingo dituelarik.

Azkenik, oposizioak ez zuen bultzatu *Euskaldunon Egunkariaren* akzioak erostea; bai, ordea, *Egunkaria* egunero erosi eta bertan publizitatea egitea.

### ✓ Oposizioak dimisioa eskatu

Blokeko 10 zinegotziek Alkatearen dimisioa eskatu zuten astelehenean.

Besteak beste, Autobiako lanetan parte hartzen ziharduten enpresa eta langileen kontrako beldur-kanpainan parte hartzeagatik, eta Instituzio demokratikoen aurka jokatzegatik.

Oposizioak "beldurraren enbaxadore" moduan kalifikatu zuen Elkorok; antidemokratizat jo, eta ez duela Bergarako Alkate izaterik merezi.

### ✓ Elkorok epaltegra joko

J. L. Elkorok gezurtatu egin zituen oposizioaren salaketak. Atzera egiteko eskatu zien beste alderdiei, esandakoak egia ez zirela eta. Probak exijitu zituen.

Triste eta pobretzat jo zuen mozioa aurkezteko modua, izkutuan ekarri zela adieraziz. Gogor salatu zuen "beldurraren enbaxadore" deitu izana, eta auzitara eramango zituela iragarri zuen.

Ikusleek txalotu egin zuten orduan. Azkenean, gaia bertanbehera utzi zuen.

**ORTZI**  
ERRETEGIA

ANGIOZAR Tfnoa: 76 22 68

**P. MANSO**

Optika

OPTIKOA, OPTOMETRISTA

IRIZAR IBILBIDEA 2 Tfnoa: 76 27 86 BERGARA





✓ **Objetoreen informazio bulegoa**

Otsailaren Setik aurrera, *Bergarako Objetore Talde Antimilitaristak* informazio bulegoa zabalduko du Zabalotegi torrearen etxabea.

Astearte eta asteazkenetan, 7etatik 8etara, bertatik pasatzen den edonork *objezio* edo *insumisio* prozesuei buruzko nahibeste xehetasun jaso ditzake.



✓ **Berbeltzu etxea bertanbehera**

Bi ordu behar izan ziren Berbeltzu etxea bertanbehera botatzeko. Errepidea zabaltzeaz gain, Lasagabaster solairuan dagoen behinbehineko azoka aldatu eta gero hainbat etxebizitza eraikiko dira ingurunean.



✓ **Ertzantza, D.Y.A. eta Gurutze Gorria**

Bergarako Ertzantzak, Antzuolako D.Y.A.k eta San Prudentzioko Gurutze Gorriak iragarri berri dituzte joan den urtean zehar egindako lanen gorabeherak.

Daturik aipagarriena zera litzateke: 1990ean zehar 408 kotxe-istripu gertatu zirela inguru hauetan; 10 pertsona hil, 49 larriki zauritu, eta beste 111k traumatismo ezberdinak jaso zituzten.

Kotxe-istripuez aparte, D.Y.A. eta Gurutze Gorriak mota guztietako traumatismo eta erorketak atenditu zituzten; baita 26 lan-istripu ere. Eta kasu batzuetan alkohol edota drogaz intoxikatuei, mendiko erreskate taldeei, emakume haurdunei eta suteetan zauritutakoei laguntzeko prestu egon ziren.

Ertzantzari dagokionean, aipatu 90ean 2.655 denuntzia ezarri zituztela zirkulazio arauak ez errespetatzeagatik; arazo berdina gatik zortzi pertsona atxilotu zituzten, eta baita 43 kotxe inmobilizatu ere.

Bestalde, 76 pertsona atxilotu zituzten jabe goaren aurkako ekintzengatik (lapurketak, batez ere), eta droga trafikogatik 15.

**DIETETIKA ETA NUTRIZIO ZENTRU MEDIKUA**

Gizentasuna, argaltasuna, diabetea, hipertentsioa, kolesterola, azido urikoa, haurdunaldiak, umeak, kirolariak, eta abarrentzat tratamendu dietetikoak.

**AURREZ ESKATU BEHAR DA KONTSULTA ORDUA.**

Espoloia 4, 4. B

BERGARA

Tfnoa: 76 51 70



**J.M. IRIZAR LEANIZBARRUTIA**

**Estomatologoa eta Hagin-klinika**


Matxiategi 18, Behea Ezk..

Tfnoa: 76 56 57

BERGARA







### ✓ Kotxeak debalde aztertze

Bergarako Udalak, Jaurlaritzako Cadem-ekin batera, kotxeen azterketa egiteko debaldeko zerbitzua eskainiko du otsailaren 1etik martxoaren 8ra arte.

Kotxeak, lehen La Vergaresa izandakoaren garajeetara eramán beharko dira, eguna eta ordua aurretik eskatu eta gero.

Zerbitzua astelehenetik ostiralera egongo da martxan; goizetan 10etatik 13etara, eta arratsaldetan 15.30etatik 18.30etara.

Behin azterketa amaitu eta Cadem-ek daukan edozein tailerretara joan ezkerro, aurkitutako akatsak konpontzearen esku-lanaren %30eko deskontua aprobetxatu daiteke.

Besteak beste, honako kontrol hauek egingo zaizkie berebilei: Nibel eta ixurkia, Zilindro zapaketa, bateria eta kargatze zirkuitoa, distribagailua, irazekitze sistema, gasolina eta karbugailu bonba, erreketaren gasen azterketa, gasolina kontsumoa, gurpilak, argiak, suspentsioa edota direkzioa.

Interesatuak, deitu Udaletxera, 76 39 42 tfno.ra.

### ✓ San Juan Bosco

Ostirala jaieguna izan zuten Lanbide Eskolan (Elementalean), San Juan Bosco ospatzeko. Krossa, Mountain Bike proba, futbitoa, sokatira, gimkana edota patata-tortila lehiaketa antolatzeaz gain, ikasle eta irakasleek makina bat barre egin zuten antzerki emanaldian. Ondoren, taberna eta jatetxeetan sakabanatu ziren bazkaltzera.



### ✓ Santo Tomas Institutuan

Akinoko Santo Tomasen eguna astelehenean bazen ere, Institutuan ostiralean egin zuten ospakizuna. Meza, futbito eta saskibaloitxo txapelketen finalak, txokolatada eta antzerki emanaldiak gozatu zituzten. Jaiarekin segitzeko, institutukoak ere majo bazkaltzera bildu ziren.

## Zuhaitzi

AFARIAK: Asteburuetan  
Aste barruan enkarguz

Espaloia 6 Tfnoa: 76 59 22 BERGARA

## Carmen Gárate

Plastikoak eta narruzko gauzak

Bidekurutzeta Tfnoa: 76 13 23 BERGARA



Tfnoa: 76 25 99

## ETXEPARE - BILINTX LIBUBUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA







### ☐ *Ubera festa giroan*

Larunbat eta igandean zehar, giro aparta bizi izan zuten Uberan, San Paulo jaien ospakizunean. Hor ibili ziren trikitrilariak gora eta behera, mundu guztia dantzan jarriz. Era berean, bertara hurbildu ziren guztiak salda, txorixoa eta ardoa dastatzeko aukera izan zuten. 91ko San Pauloak ere, festa giroan joan zaizkigu.



### ☐ *Barre ugari umeen antzezpenean*

Larunbat eguerdiz, eta Uberako jaien egitarauaren barruan, auzoko pilotalekuan umeek prestatutako jaialdia burutu zen. Lehenengo partean ume txikiek *Errauskin* eta *Edurnezuri* eta zazpi ipotsak antzeztu zituzten. Gero, ume nagusiagoek *Primerako restaurantia* eta *Uberako juzgaua* eskaini zuten.

Antzerkia bukatu ondoren musikaren unea; haurrek abesti ezagunak jo zituzten txirula, txistu eta soinuaz.




### ☐ *III Pilota Txapelketaren finalak*

Igande eguerdian jokatu ziren Uberako III Pilota Txapelketaren azken partiduak.

Finalean, Gutierrez eta Egurennek 22-13 irabazi zuten Beitia eta Agirrerren kontrako partiduan. Eurak izan ditugu, beraz, aurtengo Txapeldunak.

3. eta 4. postuak erabakitzeo neurketan, ostera, Muguruza anaiak nagusitu ziren Igartua eta Cesar-en aurrean; kasu honetan ere, emaitza 22-13koa izan genuen.

Ekitaldiari amaiera emateko, sari banaketa egin zuten. Goian aipatutako bikoteez gain, final eguneko jokalaririk onena Koldo Muguruza izendatu zuten, Txapelketako aurrelaririk onena Rodrighez, atzelaririk onena Gutierrez, eta jokalaririk beteranoenaren saria, berriz, Igartuarentzat izan zen.



### ☐ *San Bizentiak Parteittin*

Uberarrek San Pauloak ospatu bazituzten, Angiozarko Parteitti auzoan San Bizenti eguna izan genuen igandean.

Meza entzun eta gero, soinujoleek alaitu zuten hurbildutakoiei emandako luntxa.





### □ Ermitako erretabloaren berriztapena

Argazkien ikusten duzuen lan taldeak bi urte daramatza Labegarietako Kiroldegiaren atzekaldeko tailer zahar batean, Bitoriano Larrañagak erakutsitako berriztapen teknikak ikasten.

Udalak antolatutako Eskola Okupazionalen ikastaroan hasi, gustatu, eta gaur egun burubelarri dihardute inguru hauetako ermita, etxe dotore eta aintzinako eraikuntzak konpondu eta moldatzen. Duela urte pare bat Angiozarko eleizako Kristo bat konpondu bazuten, azken boladan San Blas ermitako erretabloa berriztu dute.

Igandean ogiak bedeinkatzera joango zaretenok hainbat hobekuntza somatzen badituzue, beraz, badakizue nortzuri eskerrak eman!



### □ Gazte eta helduentzat egitaraua

Ostiralean ekingo diote aurtengo San Blas jaiei, auzokoentzat antolatutako afariarekin, eta afalosteko erromeriarekin. Larunbatean, berriz, arratsaldeko lauretan III. San Blas Mus Txapelketa jokatu da.

Igandean, San Blas eguna, 11etan Meza Nagusia eta opil bedeinkapena. Ondoren, Dantzarien saioa eta salda eta txistorra hurbiltzen direnentzat; eta azkenik, kukañak eta ezkondu eta ezkongabeen arteko sokatira desafioa.

### □ Igandean, opil bedeinkapena San Blasen

Aintzinako ohitura dugu San Blas egunean ermitara igo eta opilak bedeinkatzea.

Oraindik ere lagun ugari biltzen da 11etako mezatan; horren adibide bezala, aldameneko argazkia ekarri dugu txoko honetara; duela urte batzuk ateratakoa da, eta bertan emakumez beteta ikusten dugu San Blas ermita, Don Jose Mariaren bedeinkapenaren zain.

Igande honetan, Xabier Zubizarreta abadeak egingo ditu haren lanak.



## ETXAGI

JATETXEA

Afariak - Bataioak  
Jaunartzeak  
Eguneko menua  
Gosariak - Bazkariak

Mahasterreka 8 Tfnoa: 76 53 12 BERGARA

## LONBIDE

OINETAKOAK



BIDEKURUTZETA 7,

Tfnoa: 76 10 57

BERGARA



**Euskalduna  
Taberna**

OSINTXU

**CAMACHO**

\* DROGERIA  
\* USAINDEGIA

BIDEKURUTZETA 24  
BERGARA. Tfnoa: 761335

**ETXE-  
-AUNDI**

Negozio bazkariak  
Ezkontzak  
Banketeak

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
OÑATI

*Nahikari*

Mahasterreka. 29  
Teléfono. 76 57 71  
20570 BERGARA

**LXUKUN**

BEREZITASUNAK

Fraiskozuri 6 Tfnoa: 76 51 62  
BERGARA

**FERNANDEZ**

OIHAL PUSKAK  
OIHALAK

Tfnoa: 76 22 93 Tfnoa: 76 53 22  
San Antonio 3 Ibarrai 2  
BERGARA

## Joaten al zara auzoetako jaietara ?



**Ainara Zubia**  
14 urte

Normalian ez, ez didate joaten lagatzen. Asko gustatuko litzaidake, baina...



**Francisco Jimenez**  
20 urte

Uberakoa naiz, baina ez dut auzoko jaietara joateko ohiturarik. Ez zaizkit erakargarriak iruditzen.



**Felix Biain**  
48 urte

Bai, joaten naiz. Egoten den giroagatik, eta jaixak aurrera jarraitu dezaten laguntzekotan.



**Maria Nerea Alzelay**  
28 urte.

Bakar batzuetara bai, guztietara ez. Ni ez naiz Bergarakoa, eta orduan, ba lagun bat edo ezagun bat daukadanean joaten naiz, elkarrekin egotearren; bestela ez.

## LANBIDE HEZIKETA INSTITUTOA

### 40 ORDUKO ARAUTU GABEKO IKASTAROAK

Ikastaroa	Hasiere Eguna
* Kabitare kontrola.....	91-2-11
* Zerbaki kontrola. Sarrera.	
AURKI 8000T. 0 Maila.....	91-2-4
* Mikrokontrolagailuak 8 byte MCS-51.....	91-2-4
* Zerbaki kontrola. Sarrera.	
AURKI 8000T. 1 Maila.....	91-3-20
* Zerbaki kontrola. Sarrera	
AURKI 8010M 0 Maila.....	91-5-6
* Automata programagarriak. Sarrera.....	91-2-18
* Automata programagarriak. Garapena.....	91-4-8

**TALDEEN ARDURADUNA:** Jose Antonio Echeberria Tfnoa: 76 24 91  
Antolaketa eta Dirulaguntzak: Gipuzkoako Foru Aldundia: Ekonomia Departamentua  
Eusko Jaurlaritza  
Laguntza Teknikoa: Enpresaren Garapenerako Zentrua  
Bultzatzailea: Lan Heziketarako eskualde komitea.



• • • • •  
**Pasa den larunbatean, Bergara eta Angiozarko motorzaleek afaltzera gonbidatu zuten Herri Torrontegi, pilotu bizkaitar ezaguna.**

Afaria Angiozarko Taberna Zaharrean egin zuten, eta 25 lagun inguru bildu ziren.

Afalostean, jaigiroan zebiltzala, Ertzantzak poltsikoak hustu arazi zizkien guztiei; antza denez, gure motorzaleok petardo zaratatsuak botatzen ibili omen ziren, eta hortik autoridadeen aserrea.



**Zertan dihardute ba?**

**M. KARMEN GALLASTEGI**


45 urteko bergararra, Jaur-laritzako Gobernu berriko Ekonomia



eta Planifikazio Sailburu izendatu du Eusko Alkartasunak. Irakaslea dugu.

**JON LAZKANO**

Hogei-tabat urteko eskalatazaileria, Chileko Patagonia-  
ra joan zen abenduaren hasieran, *Las Torres del Paine* izeneko gailurrean bide berria zabal-  
tzera. Azken urratsak ematen ari omen da.



Jose Manuel Merino, Arkaitz Manuel, Jose Migel Etxeberria, Xabier Calvo eta Aitor Pedrejon ikusten ditugu argazkian. Eskari bat luzatzera hurbildu ziren: *Berrigararen* euren lanak kaleratzea. Txokoren bat asmatuko ote dugu!

**JOSE A. APERRIBAI**


45 urte, bergararra, 14 daramatza landareak katalogatzen. Beste aurkikuntza askoren artean, duela gutxi *Gizatx lore zuria* topatu zuen Urkulun.



• • • • •  
 Ohartuko zinatenez, azken orduan despistatu, eta joan den asteko alean okerreko argazkia atera genuen orrialde honetan.

Testuan, *Berrigarako* marrazkilaria aparta den Josu Okinaren berri ematen bagenuen, erretratua karta jokuan ziharduen emakume talde bati zegokion.

Bakoitzari berea eman asmoz, beraz, oraingoan Josu ikusten duzue argazkian.



Pintxoak, eguneroko menua eta karta bereziak ditugu.

Betiko eta oraingo sukaldaritza.

Barrenkale, 3 • BERGARA • telf.: 943-765919

**BOLINTXO OKINTEGIA, S. A.**

Eta orain EIBARren IBARKURUTZ 4an

Tfnoa: 76 16 93  
BERGARA

Tfnoa: 79 63 42  
ARRASATE



## Hau dok barreguria

Bakoitzai bere gustua egitten laga bihar jako. Hau da benetako gizalegia eta libertadia. Izan be oso gusto diferentia izaten dittugu. Txoonpi-  
ok garbi asko erakutsi zoskun hau. Bihatza bere ipurzuluan sartu eta gero txupau eitte ei zeban.

- Baiña Txoonpio, ze zikinkerixa dok hori?

- Bakoitzak bere gustua mutil, bakoitzak bere gustua.

\*\*\*

"Nik jaukat suerte malapartaua, nik. Hamabi urte monagillo eta sakristau izatera be enintzuan aillegau, hiru urte soldau eta beste hiru gerran eta kabo izatera be ez. Pentsaik, ni jaio nintzianian ama be ez ei juan etxian eta".

\*\*\*

Itsu batek pasadizuan zozian emakume bati:

- Limosnatxo bat Jangoikuan izenian.  
- Baiña gizona, atzo patxadaz jarritta, periodikua irakurtzen ikusi zinttudan eta.

- Eta zer? Nere zortzi orduak egin ondoren eztaukat horretarako deretxorik, ala?

\*\*\*

Behin Bergarako arduzale amorratu bat medikuana doia gaixua pasau barri eta honek esaten otsa:

- Hik txikiteo gogorra egingok egunero, ezta?

- Ez, haundi haundixa be ez, pare bat dozena, gehixenera jota.

- Ba gaurtik aurrera txikiteua zihero ebitau biok, errekaidian arriskua daukak eta.

Bai gure gizonak ondo entendidu be: "Erreka aida" txarra zala ta, txikiteua be ebitau biar zala ta, errekatik urriñ, Gorla aldera joaten ei zan egunero ardao botia bizkarrian zebala.

## Melindres abiadoria

Behin baino gehiagotan ibili izan naiz guk horrela deitzen genion eta Euskal Herrian tokian-tokian orratza edo mari-orratza, burruntzia edo mari-burruntzia den mamutz egalari lirain eta burrundariak Bergarako euskera jatorrean izan zezakeen izenari buruzko argipide bila, deitze-modu bitxi horren herroa gure kale-euskeraren pobretasunean zetzanaren ustetan. Hala ere, eta Bergarako euskera ongi jakin eta zerabiltenei galdetu izanarren, ez dut horretaz bestekoren bat aipatu didan bakar bat baino aurkitu ahal izan. Horrek "begietaratzaila" esan zidan, gure erderazko "sacajos"-en eta Torbio Etxeberriak dionez Eibarren darabilten "begixak ataratzekua"-ren kide eta, nolana ere, hoiek benetako izenak ez baizik eta izenatarako hartutako izen-lagunak ditugula garbi dago.

Arriagaren "Lexicón bilbaino"-k ez dakarrenarren, Bilbo aldean duela hirurogei bat urte "avión" esaten ziotela entzuna dut, hori ere berria eta herro zaharrik gabekoa noski.

Gure "Melindres", 1911. urtean Parisetik Madrilerainoko egazkin-lasterketa irabazi zuen Vedrines egazkinlari frantsesa dugu. Orduko egunkarietan irakurri daitekeenez lehiaketa hori hiru zatitan egin zen, Donostia bigarren bidatz-buru zela, eta Vedrines horra ere lehenen iritsi zenez gero haren izenak sona haundia hartu zuen gurean; aldi hartako albisteen arauera Gipuzkoan jende asko atera omen zen mendietako begiratoki hautetara hura egan igarotzen ikustera.

Dirudienez, eta guk darabilgun mamutz-izen hori lekuko, Bergaran ere izan zuen arrakasta, kale-giroan behintzat izen jatorra ahaztu-arazterainokoa.

"Berrigararen" irakurleen artean izango al da nire ikasi nahiaz errukitu eta zientzi-izenez "libelulla" deritzan horren Bergarako euskerazko izena erakutsiko didanik.



Josu Oregi

## A. ZANGITU

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

Tfnoa: 76 19 54 BERGARA  
Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE

## GURIA

TABERNA

Bidekurutzeta5,  
Tfnoa: 76 20 34

## KIZKUR



ILEAPAINDEGIA

Bolu 51 Tfnoa: 76 50 32 BERGARA

## Gracian

HARATUSTEETARAKO  
OSAGARRIAK

Bidekurutzeta 6 Tfnoa: 76 10 25

## Siaska

Dena zure  
haurarentzako

Pedro Deuna 10, Tfnoa: 76 10 39  
BERGARA

## Gallastegui Jostundegia

Mahoizko lanerako jantziak

San Pedro 17, Tfnoa: 76 10 85 BERGARA



### Antzuolako atletak

Joan den asteburuan, Antzuolako hiru atleta izan genituen Lasarteko Nazioarteko Krossean.

Alde batetik, senior mailan Antonio Merinok korritu zuen; proba bukaeran 21. postuan sartu zen helmugan.

Eta bestalde, kadete mailan, Beñat Aiastui 30., eta Julen Garitano 54. lekuan sailkatu ziren.

### Ikastaroa

Oraindik ere zabalik dago otsailaren 5era arte kirol entrenamentuari buruzko ikastaroan izen emateko epea. Interesatuak, jo Udal Kirol Zerbitzura.

### Jon Agirrebeña

11 urteko bergararrak, Astunen jokatuak Euskadiko Eski Txapelketaren bigarren proba irabazi zuen haur mailan. Lehenengoan erori, ordea, eta sailkapen orokorrean ez zuen aukerarik izan. Zorionak, dena den!

# Joseba Arietaleanizbeaskoa

## Mountain Bike-aren zirrara

Josebak hogeitabi urte ditu. *Metagra* enpresan egiten du lan.

### Gipuzkoako Txapeldun

Joan den urtean, Mountain Bike modalitatean Gipuzkoako Txapeldun izan genuen, Zumarragan korritutako proba irabazi eta gero. Mountain Bike-aren booma bizitzen ari garela uste du. *"Geroz eta jende gehiagok praktikatzen du, eta hori igarri egiten da, batez ere ziklismoaren munduan diharduten enpresak diru asko inbertitzen hasi direlako"*.

### BH Taldeak fitxatu berri

Bere lan ona medio, BH Taldeak Joseba fitxatu du sortu berria den talderako. *"Bost Euskaldunek osatuko dugu taldea. Dirurik ez, baina BHk materile guztiak eman eta desplazamentuak ordainduko dizkigu"*.

Eta tira, gustora onartu du eskaintza. *"Geroz eta proba gehiago antolatzen dira, aliziente hobeekin..."*.



### Bergararrak berotu

*"Irtetzen naizenean, harrituta gelditzen naiz Mountain Bike-an dabilen jende mordoarekin; eta hemen, zergatik ez zirrara hori? Polita litzateke koadrillan joatea!"*.

## Etxaniz eta Zezeaga

Pasa den larunbatean, frontoira hurbildu zirenek Jose Mari Zezeaga eta Jokin Etxaniz bergarrek osatutako bikotea animatzeko aukera izan zuten.

Arteaga eta Errastiren aurka neurtu zituzten indarrak, eta baita garaipen erraza eskuratu ere, 22-10.

Partiduko pilotaririk erabakiorrena Zezeaga izan genuen, atzekaldean jaun eta jabe. Etxanizek ere ederto asmatu zuen aurreko koadroetan.

Partidu borobila, beraz, bi bergarrek eskaini zutena.



IGERILEKUKO

TABERNA

EGUNEKO MENUA  
AURREZ ESKATUTAKO  
AFARIAK

Tfnoa: 76 53 55

ayastury

JANTZIDENDA

BARRENKALE, 30  
Tfnoa: 76 11 31  
BERGARA





## H

ara gaurkoan San Martinetako tanborradako erretratu.

1973koa da eta urte hartan hamazortzi elkartek hartu zuten parte. Argazkian horietako batzutako "dama"-k daude.

Ezkerretik eskumara hauek dira: Isabel Peñalba (Sagar-pe elkartekoa), Maite Sotil (Aitonak), Maria Jesus Azkargorta (Ollagorra), Arantxa Larrañaga, ohorezko "dama" (Pol-pol), Lourdes Zeziaga (Alkartu nai), Mari Karmen Ganuza (Danok bat) eta Beni Agirre (San Migelpe).

Horiez gain, nahiz eta argazkian ez agertu beste hauek ere hartu zuten parte: Arantxa Alberdi (Bordatxo), Mirentxu Umerez (Gorla), Lourdes Ormaetxea (Gure Ametsa), Ana Jesus Unamuno (Juventudes Parroquiales), Maria Jesus Larrañaga (Peña Kikio), Maria Cruz Gantxegi (Madura), Ana Miren Yarza (Oxirondo), Amaya Ibarra (Hermandad Percha), Arantxa Mujika (Club Deportivo Vergara), eta Maria del Mar Zumelaga (Umore-Ona).

*Estepan Plazaola*

**ERREKI**

**ERRETEGIA**

TXITXARRO ETA SAIHESKI JANA  
ASTEBUKAERETAN

Fraiskozuri Enparantza  
Tfnoa: 76 38 51

BERGARA



**Rairabal**  
Gozotegia

ARTEKALE 9, Tfnoa: 76 11 83

BIDEKURUTZETA 20/22, Tfnoa: 76 12 19



**ETXEBIZITZA**

- Pisu ederra salgai Irizar pasealekuan. Deitu 761708 Tfnoa.
- Pisua salgai edo alokairuan. Polita eta amueblatua. Deitu 762916 Tfno.ra, 21etatik aurrera
- Amueblatutako pisu bat alkitatzen da denboraldi baterako. Tfnoa: 8615-55, edo 862301.
- Pisua behar dut alkitatzen. Tfnoa: 764255.
- Gela independente bat alokatzen da. 762112.
- Konpondutako pisu txiki bat salgai, oso modu onean. Deitu 13.15etatik 14. etara. Tfnoa: 761079.

• Etxe handia erosi edo alokatu nahi dugu. Markea bada, hobeto. 764507.

• Baseria salgai Bergaratik 3 km.ra. 770081, 10etatik letara eta 6etatik 8etara.

• Pisua salgai Koldo Elizalden. Tfnoa: 765823

• Lokal komertziala alkitatzen da bolun. Tfnoa: 763797.

• Pisua salgai Olan, konpondua eta amueblatua. Modu onean. 761669.

• Pisua alokatzen da Toki-Ederren. Gaez deitu 764988 Tfno.ra.

• Soto eta garajeak salgai Martokuan. Tamainu ezberdinetakoak. 761078.

**LANA**

• 16 urteko neska euskaldunak umeak zainduko lituzke 3retatik 9ak arte. Tfnoa: 764061.

• Emakume euskalduna behar da, goizetan umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 763157.

• Emakume bat eskaintzen da lanerako. 765403.

**DENETARIK**

• Alemaneko klase partikularrak. 765697.

• *Pastor Alemana* galdu zaigu. 6-7 hilabetekoa, ez dauka koilarrik. Aurkitzen baduzu, deitu 764632ra.

• Pintura klaseak. Tfnoa: 764014 edo 763493

• Ikasi josten zure astialdian. 762858

• 20,50 m<sup>2</sup>ko garajea alkitatzen da Burdifatzen. Egin berria. 764003

• 55 m<sup>2</sup>ko lokala alkitatzen da. 765859, gaueko 9etatik aurrera.

• IPUIN dendaren albo-ko lokala alokatzen da. Galdetu Ipuin-en.

**SALDU-EROSI**

• Karrerako bizikleta ia berria salgai. Kuadroa Mercier, pieza gehienak Zeus. Precio ona. 763269

**Hildakoak**

*Ignazio Arriola Oregi*

Urtarrilaren 25ean. 57 urte

**BERRIGARA**

Eskatu eta etxean



76 03 97

**ONENA**  
TINDATEGIA

BARRENKALE 29

BERGARA

**GOIERRI**  
AUTOGIDARIEN ESKOLA

Fraiskozuri Enparantza, 5  
BERGARA

Tfnoa: 76 41 50





# BERGARAKO UDALA KIUB

## ZURE BEREKILA DOHAINIK AZTERTZEA

BERGARAKO UDALAK, CADEM-EUSKO JAURLARITZAREKIN bat eginda, zure berebilarentzat zerbitzu guztiz dohanikoa eskeintzen du.

Berebila aztertzea:

TOKIA: LEHEN LA BERGARES A IZANDAKOEN GARAJEETAN.

Harruriaga kalean z/g.

EGUNAK: 1991ko otsailaren 1etik martxoaren 8ra arte.

ORDUAK: Lanegunetan: 10etatik 13etara eta 15,30etatik 18,30etara. Larunbatak: Itxita.

OHARRA: Eguna eta ordua aurretik eskatu egin beharko da.

 **Cadem**

*Pia eta Fabio Betaurrekoak:*

**2.550** pta. bakarrik




Modazko betaurreko berri, oso polit eta guztiz erakargarriak nahi badituzu, hona hemen Pia eta Fabio ereduak:

2550 pta. soilik.

MultiOpticas-ko betaurreko hauek J. Larrañaga Optika bakarrik aurkituko dituzu.

Beste inork ere ez ditu.

*J. Larrañaga*  
OPTIKA

 **MULTIOPTICAS**

San Pedro, 22 - BERGARA  
Juan Carlos Guerra, 1 - ARRASATE  
J. M. Barandiaran Enparantza - ORDIZIA

# Guztiz erakargarriak